ESTATUTOAK.

# I. ATALA.

## XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.
**SORKUNTZA, IZENA ETA IRAUPENA.**

"OSTADAR KIROL FUNDAZIOA" izenaz izaera pribatu eta mugarik gabeko iraupeneko KIROL FUNDAZIO eta soziala sortzen da.

2. Artikulua.
**ERAENTZA JURIDIKOA, NORTASUN ETA GAITASUN JURIDIKOAK.**

Fundazioak nortasun juridiko propio eta independientea izango du eta gaitasun jurudiko eta iharduteko osoak izango ditu, hauen muga bakarrak sortzaileek Fundazioa sortzeko egintzan azaldutako borondatearen adierazpenean, Estatutu hauetan eta aplika dakizkiokeen lege xedapenetan, bereiziki, 12/1994 Legean, Ekainaren 17.eko Euskal Herriko fundazioei buruzkoan, ezarrita dituela.

3.Artikulua.
**FUNDAZIOAREN HELBURUAK BETETZEA.**

Fundazioaren helburuak eta hauei dagozkien guztia betetzea Fundazioaren Zaingo Batzordearen ardura da, aurreko artikuluan aipatutako mugen barnean.

4. Artikulua.
**LURRALDE EREMUA.**

Fundazioaren iharduera Lasarte-Orian gauzatuko da nagusiki.

**ESTATUTOS**

# CAPITULO I.

## DISPOSICIONES GENERALES.

**Artículo 1°**
CREACION, DENOMINACION Y DURACION

Con el nombre de "OSTADAR KIROL FUNDAZIOA" se crea una fundación deportiva y social de carácter privado y de duración indefinida.

**Artículo 2°**
ORGANIZACION JURIDICA, ENTIDAD Y CAPACIDAD JURIDICA

La Fundación tendrá identidad propia e independiente, y capacidad jurídica y de acción completas,teniendo como únicos límites la voluntad expresada por los fundadores en el acto fundacional de la misma, estos estatutos y los dictamenes legales que le sean aplicables, sobre todo aquellos que aparecen en la ley 12/1994 del 17 de Junio que trata de las fundaciones de la Comunidad Autónoma Vasca.

**Artículo 3°**
CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS DE LA FUNDACION

Es responsabilidad del Patronato de la Fundación, dentro de los límites citados en el artículo 2°, cumplir los objetivos de la Fundación y todo lo referido a éstos.

**Artículo 4°**
AMBITO TERRITORIAL

La actividad de la Fundación llevará a cabo en Lasarte-Oria.

FORU TIMBREA
TIMBRE FORAL

25 PTA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE GUIPUZKOA
HOGEITA BOST PEZETA
4. MOTA
4.ª CLASE

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

A 3216940

5. Artikulua.
**EGOITZA.**

"OSTADAR KIROL FUNDAZIOA"k Lasarteko kale Nagusiko 6.ean galeria komertziala izango du bere egoitza, nahiz eta Zaingo Batzordeak berau aldatzeko gaitasuna izan.

**Artículo 5º**
DOMICILIO SOCIAL

"OSTADAR KIROL FUNDAZIOA" tendrá su sede en la galería comercial del nº 6 de la calle Nagusia de LAsarte-Oria, si bien el Patronato tiene la plena competencia de cambiarla.

PEDRO A. BARAIBAR ASKOBERETAREN NOTARITZA - DONOSTIA - NIHIL PRIUS FIDE

6. Artikulua.
**HELBURUAK.**

"OSTADAR KIROL FUNDAZIOA"ren helburu orokorra Lasarte-Orian kirola sustatzea da, eta horretarako behar diren ekintza guztiak egitea eta honen adierazle, hona Fundazioaren helburu hurbila: Saskibaloiko Herri Eskola sustatzea da.

Fundazioak kirol iharduera hauen bidez Lasarte-Oriatar guztientzako topaleku, integrazio eta harreman gune izan nahi du, beren egoera legal edo administratibo, bizileku, iritzi eta sinismen erlijioso, politiko edo ideologikoak edozein direlarik ere.

OSTADAR KIROL FUNDAZIOA erakunde irabazi-asmogabea izango da.

**Artículo 6º**
OBJETIVOS

Los objetivos de "OSTADAR KIROL FUNDAZIOA" son fomentar la práctica del deporte en Lasarte-Oria, y realizar todos los actos que sean necesarios para ello en el municipio, siendo el exponente la creación de una escuela municipal de baloncesto.
La Fundación, mediante esta actividad, pretende ser punto de encuentro integrador de todos los Lasarte-oriatarras - cualquiera que fuere su situación legal o administrativa, domicilio, credo u opinión política o ideológica.

"OSTADAR KIROL FUNDAZIOA" es una entidad sin ánimo de lucro.

7. Artikulua.
**HELBURUAREN GARAPENA.**

Fundazio-helburuari dagozkion iharduerak egoki deritzon eran burutu ahal izango ditu Fundazioak, muga bakarrak legeak aurrikusitakoak edota Estatutu hauetan jasotako aurrikuspenetatik ondoriozta daitezkeenak izango direlarik.

Horrela bada, Fundazioak bere helburuaren garapena honako era hauetan egin ahal izango du, legeak ezartzen dituen mugen barnean betiere:

a) Fundazioak berak zuzenean, bere organoen bidez, Zaingo Batzordeak aldizka prestatu eta onartu behar duen iharduera-egitasmoa gauzatuz.

**Artículo 7º**
DESARROLLO DEL OBJETIVO

La Fundación podrá llevar a cabo las actividades correspondientes al objetivo fundacional como juzgue más adecuado siendo los únicos límites los previstos por la ley y/o los recogidos en estos estatutos.

Así pues, la Fundación podrá desarrollar sus objetivos de la siguiente forma, siempre en los límites establecidos por la ley:

a) La Fundación misma directamente, mediante sus órganos, llevando a cabo el calendario de actividades que el Patronato debe elaborar y aprobar de manera periódica.

b) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarri izan litezkeen beste entitate edo pertsona jurudiko nahiz fisikoen ihardueretan esku hartuz, bereziki Fundazioaren ingurunekoak direnean.

c) Fundazioaren helburu berak dituzten entitate edo pertsona juridiko nahiz fisikoekin elkarlanean ekimenak antolatuz eta burutuz.

8.Artikulua.
**FUNDAZIOAREN IZAERA PLURALA.**

Fundazioak, bere helburuekin koherentziaz jokatzeko eta helburu hori ahalik etaondoen bete ahal izateko, izaera plurala duen entitate bezela definitzen du bere burua, edozein talde, alderdi edo partikularren interes jakinetatik at eta egon litezkeen diferentzia politiko eta ideologikoen gainetik. Honela bada, botere publiko eta partidu politikoekiko independentzi osoa gordeko du.

Aurrekoaren ildotik, Zaingo Batzordeko kide izateko edo Fundazioaren Idazkari kargurako bateraezintasunik dagoen Fundazioak berak erabakiko du, kasuan kasuko.

## ***II.ATALA.***

## ***PARTAIDEAK.***

9. Artikulua.
**FUNDAZIOAREN PARTAIDEAK.**

Fundazioaren partaideak Sortzaileak, Laguntzaileak, Onuradunak eta Ohoreko-Kideak izango dira.

10. Artikulua.
**SORTZAILEAK.**

Sortzaileek izaera juridikoa emango diote Fundazio-sorrerako eskritura publikoari. Sortzaileak sortze gutunean azaltzen direnak izango dira.

b) Participando en actividades de otras entidades o personas jurídicas que persiguen los mismos objetivos y pueden resultar provechosas para cumplir los objetivos de la Fundación.

c) Organizando y llevando a cabo conjuntamente actividades con otras entidades o personas jurídicas que tengan los mismos objetivos que la Fundación.

**Artículo 8°**
CARACTER PLURAL DE LA FUNDACION

A fin de actuar en coherencia y cumplir sus objetivos de la manera más óptima posible, la Fundación se define como entidad de carácter plural libre de intereses particulares o partidistas y al margen de diferencias políticas o ideológicas. Así pues, preservará la total independencia con respecto a los poderes públicos y partidos políticos.
En consonancia con lo anterior, las posibles incompatibilidades para el cargo de secretario de la fundación o miembro del patronato las decidirá en cada caso la propia Fundación.

## **CAPITULO II**

## **MIEMBROS**

**Artículo 9°**
PARTICIPANTES DE LA FUNDACION

Los componentes de la fundación serán: Miembros Fundadores, Miembros COLABORADORES, los beneficiarios y Miembros Honoríficos.

**Artículo 10°**
MIEMBROS FUNDADORES

Los Fundadores podrán dar el carácter de Carta Fundacional a la Escritura Pública Los Fundadores son quienes otorgan la escritura pública.

FORU TIMBREA
TIMBRE FORAL

25 PTA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
HOGEITA BOST
A 3216939
4. MOTA
4ª CLASE

Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

11.Artikulua
**LAGUNTZAILEAK**

Laguntzaile izaera urtean zehar lanean diharduten Ostadar Kirol Fundazioko partideak izango dira. Urte amaieran Zaingo Batzordeak aditzera emango du zeintzu izan diren laguntzaileak, eta hurrengo urtean izaera hori izango duten pertsonen zerrenda aterako du.

Artículo 11º
MIEMBROS COLABORADORES

Se considerarán colaboradores de Ostadar Kirol Fundazioa las personas que ayudan a la fundación. A final de año el Patronato dará a conocer los nombres de las personas que tienen esa consideración.

PEDRO A. BARAIBAR ASKOBERETAREN NOTARITZA - DONOSTIA

12. Artikulua.
**ONURADUNAK**

OSTADAR KIROL FUNDAZIOAren onuradunak Lasarte-Orian kirola egin edo kirolzale diren biztanleak izango dira. Hauek babes soziala emango diote Fundazioari; eta honek hala eskaturik, ekarpen ekonomikoa ere emango diote Fundazioari, Zaingo Batzordeak hala erabakitzen badu. Lasarte-Oria Bai! Txartela erabiltzen duen edozein pertsona ere kontsidera daiteke onuraduna.

**Artículo 12º**
BENEFICIARIOS

Los beneficiarios de OSTADAR KIROL FUNDAZIOA son los personas que prectican deporte en Lasarte-Oria, y los habitantes del municipio en general. Son la base social de la Fundación y serán la base económica si la Fundación a cambio del servicio que da a sus beneficiarios solicita una aportación por su parte. Además se considerará beneficiario a cualquier usuario de la tarjeta Lasarte-Oria BAI!

13. Artikulua.
**OHOREKO KIDEAK.**

Fundazioaren helburua lortzeko bidean nabarmendu diren eta nabarmentzen ari diren pertsona fisiko edo juridikoak Ohoreko Kide izendatu ahal izango ditu Zaingo Batzordeak.

**Artículo 13º**
MIEMBROS HONORIFICOS

El Patronato podrá nombrar miembros honoríficos a todas aquellas personas físicas o jurídicas que hayan destacado o estén destacando en la labor de lograr los objetivos de la Fundación.

14. Artikulua
**URTEKO BILERA**

Ostadar Kirol Fundazioak osatzen duten partaide guztien topagunea izango da. Urtero egin ahal izango den bilera hau informatiboa da, eta onuradun guztien partehartzea bultzatuko da.

**Artículo 14º**
REUNION ANUAL

Será el punto de encuentro integrador de todos los miembros de la Fundación. Se podrá reunir todos los años, y se impulsará la participación en ella de todos los beneficiarios.

## *III. ATALA.*

## *GOBERNU-, ORDEZKAPEN-, ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK.*

15. Artikulua.
**ZAINGO BATZORDEA.**

Aplika dakizkiokeen indarreango xedapenetan ezarritako mugak soilik izango dituela, Fundazioaren ordezkapena, gobernua eta administrazioa Zaingo Batzordeari dagozkio erabat. Honek Fundazioaren iharduera eraginkortasunez burutzeko zuzenbidez legozkiokeen ahalmen eta botere guztiak erabiliko ditu eta, besteak beste, Estatutu hauek interpretatzekoa.

Aurrekoa kontutan hartuta ere, Zaingo Batzordeak bere kideetako batengan edo batzuengan eta baita kanpoko beste pertsona batengan edo batzuengan ere, fisiko zein juridikoak izan, delega ditzake bere ahalmen eta botere guztiak edo hauetakoren bat, kontu eta aurrekontuen onarpena eta Babesletzaren baimena behar duten edo Fundazioaren gestio arrunta gainditzen duten egintzak salbu.

Aurreko parrafoan aipatutako mugak kontutan hartuta, Zaingo Batzordeak batzorde delegatu edo betearazle bat edo gehiago era ditzake, kasu bakoitzerako ahalmenak zehaztuz. Era berean, funtzio edo erantzukizun amankomun edo solidarioak izango dituzten ahaldun orokor edo bereziak izendatu ahal izango ditu.

Ordezkari eta ahaldun orokorren izendapen eta errebokazioak Fundazioaren Erregistroa iskribatu beharko dira, auzitarako direnean salbu.

Zaingo Batzordeko kideak dohainik arituko dira bere karguko lanetan. Nolanahi ere, funtzio horiek gauzatzean sortutako gastuen zenbatekoa berreskuratu ahal izango dute egoki zurituz gero.

LAN ... JUSTICIA ... del País Vasco

## CAPITULO III

## ORGANOS DE GOBIERNO, REPRESENTACION Y ADMINISTRACION

**Artículo 15º**
EL PATRONATO

Con los únicos límites que le fijan las disposiciones en vigor, el gobierno, la representación y la administración de la Fundación competen únicamente al Patronato. El Patronato utilizará todos los poderes que pueda tener para llevar a cabo positiva y adecuadamente todas sus funciones, así como, entre otras, la interpretación de estos estatutos.

Incluso teniendo en cuenta lo anterior, el Patronato puede delegar sus poderes o alguno de los mismos en alguna persona, física o jurídica, tanto sea miembro del mismo o no, excluyendo la aprobación de los presupuestos y los actos que necesiten del permiso del Protectorado o aquellos que sobrepasen la gestión normal de la Fundación.

Tomando en cuenta los límites citados en párrafos anteriores el Patronato puede crear un grupo delegado o más, especificando los poderes en cad caso.Del mismo modo podrá nombrar personas con responsabilidades generales o particulares, con funciones o responsabilidades generales.

Los nombramientos o rebocaciones de los representantes y responsables habrá que inscribirlos en el Registro de Fundaciones excepto en aquellos casos de juicio.

Los miembros del Patronato desempeñarán gratuitamente sus cargos. Aun siendo ello así, los gastos que les surjan al llevar a cobo dichas funciones podrán recuperarlos siempre y cuando estén debidamente justificados.

Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

FORU TIMBREA TIMBRE FORAL

25 PTA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA HOGEITA BOST

A 3216938

4. MOTA 4ª CLASE

Zaingo Batzordeko kideen iraupena bi urtekoa izango da, berriro ere epe bererako eta muga gabe hautatua izan daitekeelarik.

La duración de los cargos del primer Patronato será de dos años, siendo posible ser reelegido para el mismo número de años e incluso indefinidamente.

16. Artikulua.
**ZAINGO BATZORDEAREN ESKUDUNTZAK.**

Ordezkatu, erabaki eta administrazio eskuduntzarik zabalenak erabiliz, Zaingo batzordeak era guztitako egintza edo zeregin juridikoak burutu ahal izango ditu, legeak ezarritako mugak soilik izango dituelarik.

**Artículo 16º**
PODERES DEL PATRONATO

Utilizando los más amplios poderes de representación, decisión y administración el Patronato podrá llevar a cabo todo tipo de actos o acciones jurídicos, teniendo únicamente los límites fijados por la ley.

17. Artikulua.
**ZAINGO BATZORDEAREN OSAERA.**

Zaingo Batzordeko kideak gutxienez hiru izango dira, Lehendakaria, Lehendakari-Ordea eta Idazkaria.

**Artículo 17º**
COMPOSICION DEL PATRONATO

Los miembros del Patronato serán como mínimo tres: presidente, vicepresidente, y secretario.

18. Artikulua.
**LEHENDAKARIA.**

Zaingo Batzordeak Lehendakari bat izendatuko du bere kideen artean eta honen ardurapekoa izango da Zaingo Batzordearen bileretako deia bere ekimenez edo kideen heren baten eskariz zabaltzea, baita bertako eztabaidak zuzendu eta akordioak gauzatzea ere.

Zaingo Batzordeko Lehendakariak, organu honetako kide izateagatik dagozkion ahalmenez eta Estatutu hauek esleitzen dizkiotenez gain, Fundazioa ordezkatzekoa ere badu, dela Zaingo Batzordearen eta Fundazioaren beste zenbait organoren erabakien ondorio diren ekitaldi eta kontratuetan, dela gerta litezkeen auzi, espediente, iharduera administratibo, gobernatibo, judizial eta judizioz kanpokoetan, auzi-jartzaile nahiz demandatu gisa edo bestelako edozein izaerarekin, eta Prokuradore zein Abokatuak auzitarako orokorrean ahalduntzeko eskumena ere badu.

**Artículo 18º**
PRESIDENTE

El Patronato nombrará un presidente entre sus miembros y será responsabilidad del mismo realizar las convocatorias de las reuniones, tanto por decisión propia como por petición de un tercio de los miembros del Patronato, y asimismo de encauzar los debates y hacer cumplir los acuerdos.

El presidente del Patronato, además de los poderes que tiene por ser miembro de este órgano y los que se le otorgan en estos estatutos, también tiene la posibilidad de representar a la Fundación, bien sea en actos o contratos que sean resultado de otros órganos de esta Fundación o del propio Patronato, bien en los juicios, expedientes, labores administrativas, judiciales, y fuera de los judiciales, bien como demandante o demandado o con cualquier otra identidad, y también tiene el poder de posibilitar para un juicio a Procuradores o Abogados.

PEDRO A. BARAIBAR ASKOBERETAREN NOTARITZA DONOSTIA

19. Artikulua
**IDAZKARIA.**

Zaingo Batzordeak bere kideen edo hirugarren pertsonen artean idazkari bat izendatuko du. Honen eginkizunak Fundazioaren lan administratiboen zuzendaritza, dokumentazioaren zaintza eta bilkuretako aktak jasotzea dira. Hauek onartu eta Lehendakariaren oniritzia jaso ondoren, Akta-liburura traskribatuko dira.

**Artículo 19º**
SECRETARIO

El Patronato nombrará un miembro bien entre sus miembros, o bien entre terceras personas. Sus quehaceres serán los de dirigir los trabajos administrativos de la Fundación, controlar la documentación y levantar acta de las diferentes reuniones. Tras la aprobación de la misma y recibir el visto bueno del presidente, serán pasadas al libro de actas.

20. Artikulua.
**DIRUZAINA.**

Zaingo Batzordeak diruzain bat izendatu ahal izango du bere kideen artean, Zaingo Batzordeak definituko dituen funtzioak betetzeko.

**Articulo 20º**
TESORERO

El Patronato podrá nombrar un tesorero entre sus miembros para que realice las funciones definidas por el Patronato.

21. Artikulua.
**ZAINGO BATZORDEAREN JARDUN ARAUAK.**

Zaingo Batzordea lau hilabetez behin bilduko da gutxienez. Urteko lehen lauhilabetekoan aurreko urteko aurrekontu arruntaren eta balantzearen likidazioari, eta urte horretako ihardueren plangintzari onespena emango zaio, bera bakarrik onartu ahal izango dituela urteko kontuak.

Lehendakariak egingo ditu bilera-deialdiak, bilera data baino hamar egun lehenago gutxienez eta eguneko Gai-Zerrenda bertan adieraziz.

**Artículo 21º**
REGLAMENTO DE ACTIVIDADES DEL PATRONATO

El Patronato se reunirá como mínimo cada cuatro meses. En el primer cuatrimestre del año se liquidará el presupuesto y balance del año anterior y se aprobará el presupuesto y la planificación de actividades de dicho año.

Los llamamientos de las reuniones los realizará el presidente, con una mínima antelación de diez días e incluirá en la convocatoria el Orden del dia.

22. Artikulua.
**ERAKETA ETA AKORDIOAK HARTZEA.**

Aurreko parrafoetan ezarritakoa kontutan hartuta ere, Zaingo Batzordea deitutzat eta eratutzat joko da bere kide guztiak bertaratu eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

**Artículo 22º**
COSTITUCION Y ADOPCION DE ACUERDOS.

Se considerará que el Patronato esta válidamente convocado y constituido cuando todos los componentes del mismo se reunan y así lo acuerden de forma unánime, además de lo regulado en los anteriores artículos.

FORU TIMBREA
TIMBRE FORAL
25 PTA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
HOGEITA BOST
4. MOTA
4.ª CLASE
A 3216937

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

Akordioak botoen gehiengoaren bidez erabakiko dira, ondorengo kasuetan izan ezik:

a) Estatutuen aldaketei, Fundazioaren fusio edo iraungipenari, Zaingo Batzordea zabaltzeari, kideen ordezkapena onartzean edo hauen hutsuneak betetzeari buruzko akordioetan. Kasu hauetan Zaingo Batzordeko kideen hiru laurdenen aldeko botoa beharko da gutxienez.

b) Aldeko botoen bestelako gehiengo edo "quorum" bat ezarria duen edozein akordiotan.

Lehendakariaren botoak argituko ditu berdinketa kasuak.

23. Artikulua.
**ZAINGO BATZORDE-KIDE BERRIAK IZENDATU ETA HUTSUNEAK BETETZEA.**

Zaingo Batzordea zabaltzearen akordioa berak hartuko du bere kideen hiru laurdenen aldeko botoez.

Heriotza, ezgaitasun, desgaikuntza, agintaldiaren-iraungipen, kargua-uzte, kargutik kentze edo Zaingo Batzordearen kide izateari uzteko beste edozein arrazoi dela kausa gertatzen diren hutsuneak betetzeko erabakia ere arestian aipatutako eran hartuko da.

Aurrekoa kontutan hartuta ere, hutsuneak gertatzen direnean Zaingo Batzordeak kide berriak izendatzeko bilduko da, eta hiru laurdeneko aldeko botoa beharko du hutsuneak ez betetzeko, betiere hiru kideko gutxieneko mugarainio.

Los acuerdos se adoptarán por mayoría, excepto en los siguientes casos:

a) Para adoptar válidamente los acuerdos de cambio de los Estatutos, fusión y extinción de la Fundación, ampliación del Patronato, sustitución de sus miembros o elección de los puestos vacantes. En todos estos acuerdos será preceptivo el voto a favor de al menos tres cuartas partes de sus miembros.

b) Para adoptar acuerdos que tengan previsto otro tipo de mayoría o "quorum".

En caso de empate el voto del presidente se considerará voto de calidad.

**Artículo 23º**
NOMBRAMIENTO Y ELECCION DE VACANTES DE LOS MIEMBROS DEL PATRONATO.

El acuerdo de ampliar el Patronato deberá adpotarse con el voto de tres cuartas partes de sus miembros.

La adopción del acuerdo de sustitución de un miembro por muerte, incapacidad, incapacitación, extinción del mandato, dimisión, exclusión u otra causa que le aparte del cargo, deberá adoptarla el Patronato de la manera anteriormente expuesta.

El Patronato podrá igualmente optar en el caso de haber vacantes, entre elegir un nuevo miembro, o no hacerlo, siempre que se respete el mínimo de tres miembros.

## *IV. ATALA.*

## *FUNDAZIOAREN XEDEA ETA ONURADUNAK.*

24. Artikulua.
**XEDEA ETA ONURADUNAK.**

Fundazioaren helburua interes orokorrekoa da eta Fundazioaren onuradun edozein pertsona natural edo juridiko izan daiteke, inolako diskriminaziorik gabe.

Fundazioak bere onuradunei emandako zerbitzuen truke zenbateko bat ordaintzea galdatzen dienean, zenbateko horren ordainketa edo abonua egitearren bakarrik zehaztuko ditu Fundazioak ondasunak. Era berean, Fundazioak eskeinitako zerbitzuen izaera dela eta, onuradunen kopurua mugatu beharra dagoenean, hauek hautatu eta zehaztea Fundazioaren Zaingo Batzordeak egingo du eta ez da atzera egiterik izango erabaki horretan.

## CAPITULO IV

## OBJETO Y ASOCIADOS DE LA FUNDACION.

**Artículo 24º**
OBJETO Y BENEFICIARIOS

El objeto de la Fundación es de interés general y puede ser partícipe de al misma cualquier persona natural o jurídica, sin ningún tipo de discriminación.

Cuando la fundación a cambio del servicio que presta solicita a sus asociados una cantidad, la Fundación concretará los bienes únicamente para el pago o abono del precio. Igualmente, cuando las características del servicio que presta la Fundación requieran limitar el número de socios, será el Patronato quien adopte la decisión que será irrevocable.

## *V. ATALA.*

## *ONDAREA ETA ERREGIMEN EKONOMIKOA.*

25. Artikulua.
**FUNDAZIOAREN ONDAREA.**

Fundazioaren ondarea indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen era guztietako ondasun eta eskubideez osatu ahal izango da.
Ondorengoek osatzen dute Fundazioaren ondarea:

a) Sortze-eskrituran jasotzen den haserako zuzkidura.

b) Sortzaile, Laguntzaile eta Onuradunen ekarpen eta kuota arrunt eta ohizkanpokoak eta Zaingo Batzordearen kideek beren borondatez egin nahi dituzten ekarpen eta ordaindu nahi dituzten kuota arrunt eta ohizkanpokoak.

## CAPITULO V

## PATRIMONIO Y REGIMEN ECONOMICO.

**Articulo 25º**
PATRIMONIO DE LA FUNDACION

El patrimonio de la fundación podrá estar compuesto de todos los bienes y derechos que permite la Ley vigente.

El patrimonio de la fundación se compone de:

a) La dotación que recoge la carta fundácional.

b) Las aportaciones y cuotas ordinarias o extraordianrias de los miembros fundadores y adheridos, o las que deseen realizar los miembros del Patronato.

DE JUSTICIA
Y SEGURIDAD SOCIAL
del País Vasco

Notaria erabilerarako soilik.

Para uso exclusivo notarial.

FORU TIMBREA TIMBRE FORAL

25 PTA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL HOGEITA

4.ª MOTA 4.ª CLASE

A3216936

c) Etorkizunean Fundazioak entitate publiko edo pribatuetatik edota partikularrengandik eskura dezakeen kostu bidezko edo dohainezko beste edozein ondasun edo eskubidek, bereziki subentzio, dohaintza, herentzia edo legatuek. Urtean zehar onartu diren dohaintza, legatu eta herentzien berri emango zaie Fundazioko kide guziei urteroko memoriatxo baten bidez.

d) Fundazioak burututako ihardueren eta ondarearen fruitu edo errentek, produktu edo irabaziek eta eman ditzakeen zerbitzuengatiko ordainketek, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera.

26. Artikulua.

**ONDAREAREN ZAINTZA**

Fundazioaren ondarearen erabilpen eta kudeaketa egokiaz Zaingo Batzordea arduratuko da.

Fundazioaren ondarea zaintzeko ondorengoak izan beharko dira kontuan:

a) Sortze-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira eta bere inbentarioan jasoko dira. Gainera, eta hala dagokienean, bakoitzari dagokion errejistroan iskribatuko dira.

b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Jabetza-Errejistroan iskribatuko dira Fundazioaren izenean. Iskribagarriak diren gainerako ondasunak dagokien errejistroetan iskribatuko dira.

c) Baloreak Zaingo Batzordeak izendatutako finantz erakundeetan gordailatuko dira. Gainerako ondasun higigarri, jabetza-titulu, gordailu-egiaztagiri eta jabari, edukitza, usaera, gozamen edo Fundazioaren beste edonolako eskubide frogatzen duen edozein dokumentuen zaintza Zaingo Batzordearen edo honek eskuordetutako pertsonaren ardura da.

c) Cualquier aportación gratuita o a precio de costo que le doten las entidades públicas o privadas, especialmente subvenciones, donaciones, herencias o legados. Se informará por medio de una memoria anual a todos los asociados de las donaciones, legados y herencias que se acepten a lo largo del año.

d) Los frutos, o rentas que aporten los bienes de la Fundación, los productos, beneficios o los pagos puedan aportar por los servicios prestados por la misma, siempre respetando la Legislación vigente.

**Artículo 26º**

CONSERVACION DEL PATRIMONIO

El Patronato se responsabilizará del uso y explotacion del patrimonio de la Fundación.

Para la conservación del patrimonio de la fundación harán de tenerse en cuenta los siguientes puntos:

a) Los bienes y derechos que componen el patrimonio fundacional estarán a nombre de la fundación y se recogerán en su inventario. Además, y cuando así corresponda, se inscribirse en el correspondiente Registro.

b) Los bienes inmuebles y/o derechos reales se registrarán en el registro de la Propiedad a nombre de la Fundación. Los demás bienes que sean incribibles se registrarán en el que les corresponda.

c) Los valores se depositarán en la entidad financiera que designe el Patronato. La conservación de los demás bienes muebles, titulos de propiedad, certificados de depósito, usufructo, tenencia, uso, disfrute o derecho de alguna clase corrresponde al Patronato o persona en quien delegue.

d) Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak Zaingo Batzordearen Idazkariaren ardurapeko errejistro liburuan jasoko dira.

e) 12/1994 Legearen, Ekainaren 17,ekoaren, 22. artikuluak biltzen dituen egintza guztiak Fundazio-Errejistroan jasoko dira, hala dagokionean bakoitzari dagokion Errejistroan egindako iskripzioa ere egin ahal izango delarik.

27. Artikulua.
**ERREJIMEN EKONOMIKOA.**

Zaingo Batzordeak urtero burutuko ditu Fundazioaren egoera ondarezkoa, ekonomikoa eta finantzieroa jasoko dituen inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua alde batetik eta, bestaldetik, Fundazioaren helburua betetzen ari dela azaldu eta frogatzen duen ekitaldi ekonomikoari dagokion Memoria.

Horrez gain, Zaingo Batzordeak ondorengo ekitaldirako gastu eta sarreren aurrekontu bat prestatuko du urtero, Memoriarekin batera, Babesletzari aurkezteko indarrean dagoen legeriaren arabera.

Gastu eta sarrera arruntak jasotzen dituen aurrekontuan Fundazioak edozein kontzepturengandik eskuratzen dituen sarrerak agertuko dira eta sarreren soberakinak Fundazioaren ondarea handitzeko erabili ahal izango dira.

Ekitaldian zehar, Zaingo Batzordearen Juntak, sortzen diren beharretara egokitzeko beharrezko edo egoki deritzen aldaketak egin ahal izango ditu aurrekontuan.

Zaingo Batzordeak ohizkanpoko aurrekontuak prestatuko ditu ohizkanpoko iharduerak burutzeko beharrezkoak direnean. Aurrekontu guziek, arruntek zein ohizkanpokoek, orekatuak izan beharko dute.

d) Todos los bienes y derechos de la Fundación se recogerán en un libro de registro del que se responsabilizará el Secretario del Patronato.

e) Todos los actos que se recogen en el art.22 de la Ley 12/1994, de 17 de Junio, se registrarán en el Registro de Fundaciones, y cuando así corresponda, se podrá inscribir asimismo en el Registro correspondiente.

**Articulo 27º**
REGIMEN ECONOMICO

El Patronato realizará anualmente el balance de situación patrimonial, económico y financiero, por un lado el balance de situación y la cuenta de resultados, por otro la Memoria del ejercicio económico que pruebe que se están cumpliendo los fines de la Fundación.

Además de éso, el Patronato preparará anualmente un presupuesto de gastos e ingresos del ejercicio económico previsto, que junto con la Memoria anual deberá presentar al Protectorado según la ley vigente.

En el presupuesto que refleja los gastos e ingresos aparecerá cualquier ingreso que reciba la Fundación bajo cualquier concepto y los beneficios obtenidos con los ingresos se podrán utilizar para ampliar el patrimonio de la Fundación.

A lo largo del ejercicio, la Junta del Patronato podrá realizar en el presupuesto los cambios que estime oportunos para acomodarse a las necesidades puntuales.

El Patronato creará presupuestos extraordinarios para cuando sea necesario llevar a cabo actos extraordinarios. Todos los presupuestos, tanto los ordinarios como los extraordinarios deberán ser equilibrados.

Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

FORU TIMBREA
TIMBRE FORAL

25 PTA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA
4. MOTA
4.ª CLASE

A 3216935

Fundazioaren sarreren erabilera 12/1994 Legeak, Ekainaren 17.ekoak, 30. artikuluan xedatutako aurrikuspenen arabera egingo da.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azken hilabetean Zaingo Batzordeak aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa eta balantzea egingo ditu eta ekitaldi horretako iharduereen eta gestio ekonomikoaren Memoria, zeinek Fundazioaren helburua gauzatzeari eta Fundazioaren ondarearen egoerari buruzko ikuspegia lortzeko nahikoa informazio bilduko baititu.

*VI. ATALA.*

*ALDAKETA, FUSIOA ETA IRAUNGIPENA.*

28. Artikulua.
**ESTATUTUAK ALDATZEA.**

Zaingo Batzordeak Estatutu hauek aldatu ahal izango ditu, betiere Fundazioaren helburua hobe betetzeko xedearekin. Aldaketarako akordioa gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoekin hartuko da.

29. Artikulua.
**FUSIOA, ELKARKETA EDO FEDERAZIOA.**

Era berean, Zaingo Batzordeak antzeko helburuak dituen beste entitate bat edo zenbaitekin fusionatzea, elkartzea edo federazioa sortzea erabaki dezake, betiere Fundazioaren helburua behar bezala jasotzen dela ziurtatuz. Akordioak gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoak beharko ditu.

Fusioaren kasurako akordioa arrazoitua izango da eta Babesletzaren onarpena beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera.

La utilización de los ingresos de la Fundación se realizará según las previsiones dispuestas en el artículo 30 de la ley 12/1994 del 17 de Junio.

En el primer trimestre del ejercicio económico el Patronato realizará la liquidación y el balance del ejercicio anterior y la memoria de las previsiones y las posibles gestiones económicas del ejercicio en vigor, lo cual será suficiente para comprobar si se trabaja conforme al objetivo establecido por la Fundación y para obtener una visión global del patrimonio de la misma.

**CAPITULO VI**

**CAMBIO, FUSION Y EXTINCION**

**Artículo 28°**
CAMBIOS EN LOS ESTATUTOS

El Patronato podrá cambiar estos estatutos siempre que sea con el compromiso de cumplir mejor los objetivos de la Fundación. El acuerdo para dicho cambio se obtendrá siempre como mínimo con los votos a favor de las tres cuartas partes del Patronato.

**Artículo 29°**
FUSION, ASOCIACION O FEDERACION

Del mismo modo el Patronato podrá decidir la fusión, asociación o formar federación con otra u otras entidades que tengan los mismos objetivos, siempre y cuando se certifique que el objetivo de la Fundación quede reflejado de modo adecuado. El acuerdo nacesitará como mínimo del voto a favor de las tres cuartas partes de los miembros del Patronato.

Para el caso de Fusión, el acuerdo deberá ser motivado, y es necesaria la aprobación de la misma por parte del Protectorado.

PEDRO A. BARAIBAR ASKOBERETAREN NOTARITZA DONOSTIA

30. Artikulua.
**IRAUNGIPENA.**

Fundazioa ondorengo arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

a) Ondarearen likidazioa.

b) Legezko xedapena.

c) Ebazpen judizial irmoz desegiten denean.

d) Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitako fusio-prozesu baten ondorioz.

e) Fundazioaren baliabideen eskasia edo beste edozein arrazoi dela medio, sortze-eskrituran eta Estatutu hauetan jasotzen dire aurrikuspenen arabera, Fundazioaren helburua betetzea ezinezko gertatzen denean eta betiere, Zaingo Batzordeak bere kideen hiru laurdenen aldeko gehiengoarekin Estatutuak aldatzea edo beste Fundazio batekin fusionatu edo elkartzea erabakitzen ez baldin badu.

**Artículo 30°**
EXTINCION

La Fundación padrá extinguirse en los siguientes casos:

a) Liquidación del patrimonio.

b) Disposición legal.

c) En caso de disolución por firme resolución judicial.

d) Como consecuencia de un proceso de fusión decidido según lo redactado en el artículo anterior.

e) Cuando los medios de la Fundación lleguen aser escasos, o sea cual fuere la causa, según las perspectivas previstas en la Carta Fundacional y las que se recogen en estos estatutos cuando los fines de la Fundación sean imposibles de llevar a cabo y siempre que el Patronato, con los votos mínimos de sus tres cuartas partes no decida cambiar los estatutos o fusionarse o juntarse con alguna otra fundación.

31. Artikulua.
**PROZEDURA.**

Fundazioa iraungitzeko espediente bat irekiko da, bertan honoko hauek jasoko direlarik:

a) Horretarako zioaren azalpen arrazoitua.

b) Fundazioaren balantzea.

c) Likidatzaileak izendatzeko proposamena, hauen iharduera-programa eta Fundazioaren ondarearen edo honen salmentaren ekoizkinen banaketarako proiektua. Aipatutako banaketa edo esleipena Zaingo Batzordeak burutuko du, Kide Laguntzaileen hiru laurdenak onartu ondoren, legeak aurrikusitakoaren arabera eta antzeko helburuak dituzten eta Fundazioak burutzen zituen egitasmoen parekoak burutzen dituzten beste Fundazio edo erakunde publiko zein pribatuak izango dira onuradunak, betiere irabazi asmorik gabea dena.

**Artículo 31°**
PROCEDIMIENTO

Para la extinción de la Fundación se abrirá se abrirá un expediente el cual recogerá lo siguiente:

a) Los motivos razonados para ello.

b) El balance de la Fundación.

c) Propuesta de los posibles liquidadores, programa de actividades de los mismos y patrimonio de la Fundación o proyecto de reparto de los beneficios de la venta del mismo. El citado reparto o elección lo realizará el Patronato, según lo previsto por la ley, siendo beneficiarios otras Fundaciones o Sociedades, bien públicas, bien privadas, las cuales tengan objetivos semejantes o lleven a cabo actividades semejantes a los que tenía o realizaba la Fundación, y siempre que sean sin ánimo de lucro.